

IL AZALPEN PROBA • <i>Espedizioa</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

Talde osoak kanpamentu batean kontzentraturik eman zuen aurreko negua, ibilaldi luzeak, flexioak, dominadak eta horrelako torturak eta lazeriak pasaraziz, beharrezkotzat jotako entrenamenduan zigorturik.

Abentura hartan, txinatarrek kamioiak iragan ahal izateko bide bat zabaldu zuten 5.900 metrora. Han hiri txiki bat eraiki zuten, zinema-areto eta guzti.

Gaur eguneko bide arrunta erabili zuten eta sei kanpamentu jarri. Azkenetik, guztietarik hamarrek lortu zuten azken metroetaraino iristea: Wang Fuzhou, Xu Jing, Zhang Junyán, Wü Zongyue, Chén San, Soian Dorje, Chéng Tianliang, Migmar Zhaxi, Dorje eta Yún Deng.

Xu JIng espedizioburua izan arren, Wang Fuzhou zen, garai hartan, alpinistarik ospetsuena. Lau urte aurrerago, 1960ko maiatzaren 25ean, goizeko 4:20an Gonpo eta Qu Yinhua alpinistekin batera, euren Qomolagma esaten dioten mendia (Everest) eskalatu zuten ipar-ekialdetik igotzen den ertzeko bidetik. Puntaren puntan, Mao presidentearen irudi bat jarri zutela esan zuten.

Everesteko eta Shishako espedizioetan, dudazko datuak eta argazkiak eman zituzten, eta eszeptizismoa nagusitu zen mendebaldean. Gaur egun, oster, egindakoa benetakotzat jotzen da, zalantza zalantza.

Gezurak gezurteroentzat, niri bost, aditu diot Lucasi.

Lucasek dio Wang Fuzhou erlojulea zela, eta ez lukeela gezurrik esango. Ez zituen marka baliotsu eta handien erloju modernoak konpontzen, nurrizko eskuturrekoak dituzten horietakoak baizik, biribil zabalak direnak, kristalaz beste aldeko barruko esferak beilegirantz egiten dutenak. Orratzak, benetako orratzak dituztenak. Segundo baten neurria zehaztuta dutenak. Tik-tak soinudunak.

IL AZALPEN PROBA • <i>Espedizioa</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

Hurrengo egunetan euria egin zuen, ia tai gabe. Temperatura apenas igo zen zero petik eta dendaren barruan hotza eta deserosotasun guztiak pairatu genituen. Nik neuk, nire lo-zakuan etzanda, Rilkeren *Poeta gazte bati idatzia* liburua irakurtzen nuen (apeta zoro batek emanik, liburu hura Gurla Mandhatako gailurrean utzi nahi izan nuen).

Indiara bidali zidan neska lagun batek, *inguratzen zaituen berebiziko paisaiarekin erka daitekeen gauza bakarra* lehen orrialdean idatzirik. Ederra zen arima bakarti baten pentsamenduak irakurtzea Himalaiaren neurrigabetasunean.

Egun batean, lerro horiek sorturiko meditaziotik honako gutuna idatzi nuen:

Zuri:

Agian, lipar honetan nigan pentsatzen egongo zara. Badakizu?, duela urte bete hain justu, elkar ezagutu genuen. Udaberriak bultzatuta kanpora landetara atera ginen. Zu lorez beteriko zelaietan jesarri zinen, zeure aho fresko eta maitatuak barre egiten zuen, hitz ederrak ahoskatzen zituen: udaberri horrek eta bizitzak inguratzen gintuen.

Gaur, agian, nigan pentsatzen egongo zara; agian, loreztaturiko zelai horretako tokiren batean jesarrita, eskuak bilduta, urruntasunean duzu iltzaturik begirada. Beti sentitu duzu urrunekoarekiko grina, eta orain nire ametsak betetzeari eta Himalaian jarrita dudan dendako gau bakartiei bekaitza diezu. Bai, aurreiritzi sozialei muzin egin ahal zenien eta nirekin egon hemen.

Ez egin ametsik, laztana. Denda barruko gau bakartiak ez dira oso ederrak. Euria ari du; dena grisa eta monotonoa da duela hiru egunetik hona.

IL AZALPEN PROBA • <i>Espedizioa</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

LUCAS. HORI DA LIBURU EDER BATEKO PROTAGONISTA. Mendi altuak igo nahi zituen *SPrako tranbia* lanean. Himalaiarako grina sentitzen zuen... eta beste gauza asko ere bai.

Bakarrik banengo legez, batzuetan harekin hitz egiteko gogo sortzen zait. Honako honetan bezala.

Harrituko zinateke, Lucas. Shisha Pangma mendi majestuoso da, eta eguna iragaten den heinean aldakorra. Gaur lehen orduan tximeleta zuria ematen zuen, gero eguzkipean harriak erakutsi ditu, hegoetako ttantak, eta arratsaldean gorritu egin da arrats-beherarekin izokinaren haragiaren kolorea hartzeraino; gauean saguzar bilakatu da berriro.

Mendi mutantea da, edo ikusten duten begien arabera izango da diodan hori. Ez dakit, Lucas.

Desertu itzela dago haren oinetan, baina ez desertu hil eta bizibako horietako bat, antzinako geografia ikasgaietako irudietan ikusten genituenak bezalakoa (Sonora, Atacama, Kalahari, Sahara, Karakum, Gobi, Taklamakan...). Hemen bizia dago.

Desertu handiak daude munduan, baina luze-zabalenak norberaren baitakoak izaten dira.

Lehoiek gustura jango lituzketen gazelak ikusi ditut, Lucas, eta ugatz handia, eta arrano eder bat, eta beste mila txori berba arraroak esanez...

IL AZALPEN PROBA • <i>Espedizioa</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

Ranrapalka mendiaren aldapa harritsuak atzera bota gintuzten zauriturik (harri bloke batek atzamar txikia lehertu zion lagunari), eta ondoan, hain zorrotza ez zen Vallunarraju mendi elurtuaren formak ikusi genituen erakargarri. Arratsalde batean desnibel belartsua egin genuen tiroi batez, izerditan blai eta nekeak jota gure dendatxoak ipintzeko goi-lautadaxo bat kausitu genuen arte. Ilunabarraren apainduri koloreztatuak itzelak izan ziren gure begi abailduentzat. Ordu horren inguruan, sute txikian zopa modukoa egiten ari ginen. Kontu handiz jagoten genuen lapiko zaharra.

Halako batean, lapikoa saltoka hasi zen sutean, eta ni, amorratuta, lagunari gaizki esaka hasi nintzaion, *txo, kontuz, dena bota behar duzu eta!!!*, eta berak, *ez naiz ukitzen ari, ba*.

Gero zopa erori egin zen.

Eta orduan beroa.

Lurrikarak beroa sortzen du, hala igarri nuen nik behintzat.

Beroa eta dardarizo kontrolagaitza nire oinpean.

Gainetik ez genuen hormarik, glaziarririk, ez eta gure gainera eror zitekeen besterik ere. Hori izan zen bermatu ahal izan nuen lehen gauza. Bigarrena, txotxongilo bat zarela, mugimendu kaotikoaren peko panpina larritua. Eta hirugarrena, laborria.

Hoge segundotan, lasaitu zen lur-azala eta inguruan dardarak sorturiko dozena bat elur-jauziren azantza entzun ahal izan genuen soilik.

Dena trankil berriz.